

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| | | | |
|---|---|-------------|-----|
| PRESTAKUNTZA-ATALA | FABRIKATUTAKO PRODUKTUEN KONTROLA ETA EGIAZTAPENA | Iraupena | 50 |
| | | Berariazkoa | |
| Kodea | UF0443 | | |
| Lanbide-arloa | FABRIKAZIO MEKANIKOA | | |
| Lanbide-eremua | Ekoizpen mekanikoa | | |
| Profesionaltasun-ziurtagiria | Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak | Maila | 1 |
| Prestakuntza-modulua | Fabrikazio-eragiketak | Iraupena | 220 |
| Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak | Oinarrizko fabrikazio-prozesuetako makinak, erremintak eta materialak | Iraupena | 80 |
| | Fabrikazio mekanikoko oinarrizko eragiketak eta prozesu automatikoak | | 90 |

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0087_1ko LB4 lanbide-burutzapenarekin: OINARRIZKO FABRIKAZIO-ERAGIKETAK EGITEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Oinarrizko neurketa- eta kontrol-tresnak erabiltzea lortutako produktuaren kalitatea egiaztatzeko.

EI1.1 Oinarrizko neurketa- eta kontrol-tresnak identifikatzea eta haien (muga-txantiloak, kalibrea, eskuaira, erloju konparadorea, marrazteko marmola, goniometroa, mikrometroa...) eta haien funtzionamendua deskribatzea.

EI1.2 Egiaztapen- eta kontrol-tresnak prozedura estandarizatuen arabera erabiltzea.

EI1.3 Egindako neurketen erregistroak eta oharrak egitea.

EI1.4 Gertakarien parteak egitea, detektatutako anomaliak eta hutsuneak adieraziz.

Edukiak

1. Neurketa, doikuntzak eta perdoiak.

- Unitateak eta baliokidetasunak.
- Zuzeneko neurketa eta konparazio bidezkoak.
- Nomenklatura eta doikuntzak aukeratzea.
- Akotazioari, perdoiei eta sinbologiari buruzko oinarrizko araudia.

2. Neurketa- eta kontrol-tresnen erabilera.

- Neurketa-tresnak: metroa, palmerra, kalibrea, mikrometroa, neurketa-zutabea, pasa ez pasa kalibreak.
- Egiaztapen-tresnak eta -gehirriak.
 - Konparadorea.
 - Diabasa-marmola.
 - Marrazteko mahaia.
 - Goniometroak.
 - Pirometroak.
 - Termometriako tresnak...
- Kotak egiaztatzea eta neurtzea, piezak eta produktuak fabrikatzeko.
- Egiaztapen-orriak eta piezen kontrola.

3. Kalitatea kontrolatzeko oinarrizko eragiketak egitea

- Akaberak aztertzea eta egiaztatzea (bizar-kentzea, leunketa, gainazal-tratamenduak...)
- Piezak eta produktuak neurtzea, eta kalitate-estandarrik aztertzea.
- Egiaztapen-prozesuak, neurketa-kontrola eta fabrikazio-espezifikazioak.
- Akatsak detektatzea eta gertakari-orriak betetzea.
- Kontrol-orriak, oharrak eta erlazionatutako protokoloak.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Sartzeko irizpideak

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak.